ESKOLA KIROLA GIPUZKOAN

GARAIAN GARAIKO KIROL OHITURAK ERAGITEN

Jakin badakigu kirol eta jarduera fisikoen ohiturek on egiten digutela. Garapen pertsonal aberatsagoa bermatzen dutela. Ohitura horiek eskuratzerako, nahitaez, prozesu bat igaro behar dugula. Prozesu hori hasierako adinetan ematea guztiz beharrezkoa da. **Baina ez edonola, huurraren garapen etapak eta ezaugarriak errespetatu behar dira.** Eta horretan dihardu Eskola Kirolak: garaian garaiko kirol ohiturak eragiten.

GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLAREN EREDUA

Eskola Kirola eskola-umeek nahitaezko eskola-aldian, 6-16 urte bitartean, eskola-orduetatik kanpo egiten dituzten **kirol jarduerak** dira. Adin horietan kirola egitea oso garrantzitsua da haurren garapenerako. Batez ere, eskola-umeen **hezketa integralaren barruan** kokatzen direnean: hezketa sistemaren era hainen etapen helburuekin bat egiten dutenean.

JOKO-JOLASA — 1 ETAPA
7-8 urte
LH1 • LH2

KIROL HASTAPEN ANITZA I — 2 ETAPA
9-10 urte
LH3 • LH4

KIROL HASTAPEN ANITZA II — 3 ETAPA
11-12 urte
LH 5 • LH6

BIZITZA AKTIBOA SUSTATZEN — 4 ETAPA
13-16 urte
DBH1-4

EZAUGARRIAK ETA HELBURUAK: HAURRA ERDIGUNEAN

DENONTZAKO
Kirol gaitasuna, generoa, maila sozio-ekonomikoa, bizitokia, jatorria... edozein dela, **ematezaka** eskola kirola.

KIROL ANITZAK
Kirol anitzasunean oinarritzen dena, esperientzia eta **jardurera meta desberdinak** eskaintzen dituen eskola kirola.

IKASTETXEEKIN
Hasierako adinetan nagusiki **ikastetxeek** garatzen duten eskola kirola.

Haurra erdigunean

ESPEZIALIZAZIOA EKIDIN
Hasierako adinetan kirol bateaan **espezializatzea ekidtten** duen eskola kirola.

ARAUTUA
Orientazio **hezigarria bermatzeko araututa** dagoen eskola kirola.

ETAPAK ETA IBILBIDEAK: ADINEN ARABERAKOAK



ZEIN JARDUERA PROPOSATZEN ZAIZKIE ESKOLA ADINEKO HAURREI GIPUZKOAN?

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero onartzen ditu eskola kirolari dagozkion programak eta jardueak. Aldundiak, udalek, ikastetxeek, federazioek eta klubek parte hartzen dute kirol jardueretan gure haurrak aktiboak izateko eta kirol kulturan hezteko asmoz. Kirol Hastapenerako Programa etapaka, hau da, **adinen arabera** antolatzen da bai **ikastetxeekin** bai **klubekin** elkarlanean.

JOKO-JOLASA — 1 ETAPA

7-8 urte
LH1 • LH2

“Adin honetan berariazko jolasean jardureak barne motibazioa handitzeaz gain, barne erregulazioa sustatzen du”.

JOLASHEZI programa da lehen etapako jarduera nagusia. Ikastetxeek eskaintzen dute eta jolasa du tresna nagusia. Lehiaketarik gabeko testuingurua bermatzen du, abilezia mota desberdinak dituzten haurren partaidetza sustatuz. **Hastapen Programa** ere eskuragarri izango dute lehen etapako eskola-umeek.

KIROL HASTAPEN ANITZA I — 2 ETAPA

9-10 urte
LH3 • LH4

“Kirol aniztasuna sustatzen duen, haurrentzako gertukoa den eta prozesua emaitzaren gainetik lehenesten duen testuinguru batean artizeak onurak ditu haurren kirol ohituretan, garapen integralean, errendimenduan eta osasunean”.

Multikirola programa da bigarren etapako jarduera nagusia. Ikastetxeek garatzen eta gauzatzen dute, toki-erakundeekin eta gainerako ikastetxeekin lankidetzan eta GFArekin koordinatuz. Benjamin (LH 3-4) kategorietako ikasle guztien parte hartzea bermatzea du helburu. **Kirol Hastapen Programa** eta **Kluben eskola kirola** ere eskuragarri izango dituzte etapa honetako eskola-umeek.

KIROL HASTAPEN ANITZA II — 3 ETAPA

11-12 urte
LH 5 • LH6

“Adin hauetan kirol hastapen egokia izateak errendimendu akademikoari lotutako faktoreak hobetu ditzake, eta funtsezkoa da osasun mentalerako: kirola erregulartasunez egiten duten ikasleek depresioa izateko arrisku gutxiago dute, eta sare soziala indartzen dute”.

Multikirola programa da hirugarren etapako jarduera nagusia. Ikastetxeek garatzen eta gauzatzen dute, toki-erakundeekin eta gainerako ikastetxeekin lankidetzan eta GFArekin koordinatuz. Alebin (LH 5-6) kategorietako ikasle guztien parte hartzea bermatzea du helburu. **Kirol Hastapen Programa, Kluben eskola kirola** eta bigarren urteko alebin mailatik aurrera **Errendimendun hasteko jarduerak** eskuragarri izango dituzte etapa honetako eskola-umeek.

BIZITZA AKTIBOA SUSTATZEN — 4 ETAPA

13-16 urte
DBH1-4

“13-15 urtetik aurrerako etapan kirol ohiturak sendotzeko garaian gaude. Klubak eta komunitatean egon daitezken bestelako aukerak dinamizatuko dira gazteen artean bizitza aktiboa sustatzeko”.

Etapa honetan eskola adineko ikaslek insitutuko ikaskideekin batera kirol modalitate ezberdinak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera daukate: **Kirol Hastapen Programaren** bitartez. Adin hauetan, eskola kirolaz gain, Udal kirol aukerak ere aktibatuko dira toki mailan, gertutasunez, gazteek bizitza aktiboa izan dezaten eraztoko.

Etapa honetan eskola adineko ikaslek insitutuko ikaskideekin batera kirol modalitate ezberdinak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera daukate: **Kirol Hastapen Programaren** bitartez. Adin hauetan, eskola kirolaz gain, Udal kirol aukerak ere aktibatuko dira toki mailan, gertutasunez, gazteek bizitza aktiboa izan dezaten eraztoko.

IKASTETXEAK ETA KLUBAK

IKASTETXEAK OINARRI
KIROL ANITZAK ESKOLA ORDUETATIK KANPO

Ikastetxeek 3 programa ezberdin garatzen eta gauzatzen dituzte toki-erakundeekin eta ikastetxeekin lankidetzan eta GFArekin koordinatuz:

JOLASHEZI Programa
LH1-2
Jolasa tresna nagusi izanik, lehiaketarik gabeko testuinguruak bermatuz, abilezia mota desberdinak dituzten haurren partaidetza sustatzen duen programa.

MULTIKIROLA Programa
LH3-6
Kirol jarduera anitzean oinarritzen den, prozesua emaitzen gainetik baliozesten duen, haurrak erdiguenan kokatzen dituen eta komunitarioa den programa.

KIROL HASTAPEN Programa
LH1-DBH4
Kirol-modalitateak irakasteko helburua duten eta eskola kiroleko urteko programa barruan dauden jardueak dira. Gipuzkoan urtero 40 bat jardueta eskaintzen dira.

KLUBEN ESKOLA KIROLA
KIROL ESKOLEN ETA KLUBEN ESKAINTZA

Kirol ibilbide hezigarriarekin jarraitu dezaten, eskolumeek, ezin dute kirol eskolen eta kluben jardueta bakarrik egin. Jardueta hauek, Multikirola programaren osagarriak eta ez ordezkoak dira:

KLUBEN JARDUERAK
LH3-LH6
Eskola ordutatik kanpoko jardueta antolatuak dira, oro har, astean zeharreko entrenamendu saio eta asteburuetako lehiaketez osatuak.

ERRENDIMENDUAN HASTEKO JARDUERAK
LH6tik aurrera
Kirolean errendimendua eta kirol helburuak lortzea xede dituen kirol praktika erraztea dute helburu errendimenduan hasteko jardueek.

IKASTETXEAN ETA KIROL ANIZTASUNA NAGUSI
13 urtera arte
13 urtera arte ez dago baimendua klubetan modu esklusiboan aritzea, jardueta osagarria da. Gipuzkoako ereduak ikasleak ikastetxean mantentzen ditu 12 urtera arte, ingurune hurbilean eta ikaskideekin batera.

NABARMENTZEKOAK

ESKOLA KIROL EGOKITUA (EKE) ETA INKLUSIBOA (EKI)

Eskola Kirol Inklusiboa estrategia (EKI) inklusio estrategia bat da, ikastetxeek edota kirol klubek garatu dezaketena, aniztasun funtzionala duten 6-21 urte bitarteko haur eta gazteek Eskola Kiroleko ohiko taldeetan parte hartzea bermatua izan dezaten. Gainera, **Eskola Kirol Egokitua programa (EKE)** garatu da, **inklusiorako baldintzak ematen ez direnean, haur eta gazteentzako jardueta fisiko eta kirol egokituko taldeak proposatuz. Inklusio ikuspegi batetik, azken helburua EKE taldeak EKI talde bilakatzea eta Multikirola Programako parte bihurtzea izango lizateke.**

TOPAKETAK, LEHIAKETAK ETA SAILKAPENAK

Eskola Kirolean, garrantzia ez zaio ematen lehiaketaren emaitzari, ikaskuntza prozesuari baizik. Horregatik antolatzen dira **topaketak**, emaitza eta sailkapenik gabeko jardueak. Oro har, astean zehar **entrenamendu saioak** egiten dira eta asteburuetan **topaketak** edota **lehiaketak.**

FAMILIAK

Familien babesa ezinbestekoa da Gipuzkoako Eskola Kirola Eredua bezalako programa bat aurrera eramateko. Bai, badakigu batzutan nekeza izan daitekeela larunbat goizetan goiz jaikitzea, dena antolatzea, eta gure **seme-alabei animoak ematea** arazoak gainditzeko ahaleginak egiten jarrai dezaten. Baina **emozioz betetako uneak** ere badira, non benetan pozten gaituzten gauza asko gertatzen diren, eta gure bizitza osoan gogoratuko ditugun aztarnak geldtzen diren.